

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

OSASUN SAILA  
Osasun-Saillburuordetza  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD  
Viceconsejería de Salud  
Dirección de Salud Pública  
y Adicciones

2016 URR. 17  
OCT. 17

SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. 348792

Josu Urrutia Telleria  
Athletic Club Bilbao  
Alameda Mazarredo, 23  
48009 Bilbao

Athletic Klubeko lehendakari jaun hori:

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legea dela-eta zuk berriki egindako adierazpenak zabaldu dira hainbat hedabideetan (Lege hori gehiengoz onartu zen Eusko Legebiltzarrean).

Arau hori San Mames zelaian aplikatzeari dagokionez egin dituzun adierazpenak direla eta, araua klubean nola bete jakiten lagunduko dizun informazioa helarazten dizugu idatzi honen bidez.

Kirol-lehiaketak egiten diren instalazioetan alkoholdun edariak banatzeko eta saltzeko debekua dela eta, garrantzitsua da adieraztea ezen debeku hori kirol-lehiaketak irauten duen denboran aplikatu behar dela, hargatik eragotzi gabe aplikagarri diren beste arau batzuk ere ezartzea. Ondorio horietarako, lehiaketatzat hartuko dira kirol-federakuntzak halakotzat jotzen dituenak.

Dagokion erregelamendua garatzeari ekiten zaion bitartean argibide eta jarraibide batzuk eman nahian, zehaztu nahi dugu noiztik noiz arte aplikatu behar den debeku hori: instalazioak irekitzen direnetik ixten direnera arte, eta, gutxienez, lehiaketa hasi baino 15 minutu lehenagotik bukatu eta 15 minutu geroago arte.

Kirol-eremuaren barruan dauden bestelako guneei dagokienez –ostalaritza-establezimenduak, esaterako–, gogorarazten dizugu debekutik kanpo geratzen direla bereizita dauden espazio sektorizatuak, kirol-jardueraren erabiltzaileentzat eta publiko orokorrarentzat sarbide propioa eta

Estimado Sr. Presidente del Athletic Club:

Recientemente diversos medios de comunicación se han hecho eco de unas declaraciones realizadas por Vd. en relación con la nueva ley 1/2016 de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias, aprobada mayoritariamente en el Parlamento Vasco.

En relación con las citadas declaraciones relativas a la aplicación de dicha norma en el campo de San Mamés, procedemos a facilitarle información con el objeto de facilitar su cumplimiento por el Club que Vd. preside.

Con respecto a la prohibición de venta y suministro de bebidas alcohólicas en instalaciones donde se celebren competiciones deportivas, y sin perjuicio de otras normas de aplicación, es importante señalar que la misma se refiere al periodo de tiempo durante el que se celebren competiciones deportivas. A este efecto, se entenderá por competiciones las que así se califiquen por la correspondiente federación deportiva.

A modo de aclaración y orientación, en tanto en cuanto se proceda al desarrollo reglamentario correspondiente, indicamos que dicha prohibición deberá observarse desde la apertura de las instalaciones hasta el cierre de las mismas y, como mínimo, desde 15 minutos antes del comienzo de la competición hasta 15 minutos después de su finalización.

Respecto de aquellos espacios tales como establecimientos de hostelería, que estén integrados en el espacio deportivo, procede informar de que quedarán excluidos de la prohibición cuando estén sectorizados y formen una parte diferenciada con acceso propio, tanto para las personas usuarias de la actividad deportiva como para el público en general.

independentea dutenak. Establezimendu horiek, gainera, ostalaritzako edo kirol-jardueraz bestelako jarduera bat ustiatzeko dagokion baimena edo udal lizentzia eduki beharko dute.

Ildo horretan Zuzendaritza honek 2016ko abuztuaren 4an kirol-federakuntzei bidalitako idatziaren kopia bat erantsi diogu idatzi honi.

Esandako guztia kontuan, Athletic Klubari eskatzen diogu araudi berria bete dezala; izan ere, hala ez egiteak zehapen-prozedurak irekitzea ekar lezake.

Zalantzarik izanez gero, jakin ezazu zure esanetara gaituzula behar dituzun argibide guztiak emateko. Besterik gabe, adeitasunez,

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 17a.


Asimismo, deberán contar con la correspondiente autorización o licencia municipal de explotación de actividad de hostelería o de cualquier otra distinta de la actividad deportiva.

En este orden de cosas, se adjunta copia del escrito remitido por esta Dirección a las distintas federaciones deportivas con fecha 4 de Agosto de 2016.

Por todo lo expuesto, requerimos al Athletic Club para que vele por el cumplimiento de la nueva normativa, evitando así la apertura de procedimientos sancionadores que pudieran derivarse en caso de incumplimiento.

Solo me resta transmitir que quedamos a su disposición para cualquier aclaración que precise. Sin otro particular atentamente.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de octubre de 2016



**Miren Dorronsoro**  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaria  
Directora de Salud Pública y Adicciones